Gurekin batera aliantza honen parte diren erakundeak Europan eredu duala oso garatuta edo garapen bidean dituzten unibertsitateak dira, bederatzi goi mailako erakunde alegia: Iparraldeko ESTIA ingeniaritza eskola, Alemaniako Hochschule Baden-Württemberg unibertsitate duala, Austriako FH JOANNEUM zientzia aplikatuen unibertsitatea, Finlandiako Savonia zientzia aplikatuen unibertsitatea, Hungariako John von Neumann unibertsitatea, Kroaziako PAR zientzia aplikatuen unibertsitatea, Maltako College of Arts, Science and Technology eta Poloniako Koszalin-go unibertsitate teknologikoa. Nagusiki zientzia aplikatuen unibertsitateak edo izaera antzerakoa dugun unibertsitateak gara, gure inguru sozioekonomikoarekin lotura handia dugunak.

Horrez gain, uste dugu honen bitartez gure unibertsitateak Europan hobeto kokatu eta sendotzeko aukera izango dugula, elkarrekin hainbat proiektu garatuz, besteak beste doktorego industrialak, master dualak, ikasleen mugikortasuna, ikerlarien arteko harremanak garatu eta batez ere enpresa eta erakundeak unibertsitatera hurbilduz.

**Mondragon Unibertsitateak du proiektuaren lidergoa.** Bai. Guk izan genuen deialdi honetan aurkezteko iniziatiba. Adibidez Alemaniako Hochschule Baden-Württembergekin unibertsitate dualarekin 2016tik gaude harremanetan, eta guretzako erreferente bat da Europako dual formazioan, 35.000 ikasle inguru dituzte eredu dualean eta 9.000 enpresa eta erakundekin lan egiten dute. Gainontzeko kolaboratzaileek ere esentzia bera izan behar zutela uste genuen, eta erakunde ezberdinetara hurbiltzen hasi ginen. Egia da orain arte guk eraman dugula koordinazio lana, baina Hochschule Baden-Württembergekin adostua dugu behin aliantza martxan dela ko-lidergo bat aurrera eramatea, bi erakundeek hartuz aliantzaren erantzukizuna.



> Mondragon Unibertsitatea enpresa eta erakundeetatik gertu dagoen unibertsitate bat bezala identifikatzen da.

**Mondragon Unibertsitateak Estatu mailan formazio dualean lidergoaren aitortza dauka. EU4DUAL posizionamendu hau indartzeko baliagarria izan daiteke?** Egia da gure ereduak aitortza bat duela Estatu mailan, enpresa eta erakundeetatik gertu gauden unibertsitate bat bezala hartzen gaituzte, ikerketa eta etengabeko prestakuntzaren alde eginez. Era berean, behin lanean hasita, aliantzako beste erakundeekin alderatuz konturatu gara guk dugula profilik osoena eredu dualari dagokionez, eta hori balioan jartzea helburu izan behar dugu. Eta bide horretan, EU4DUAL aliantzak lagunduko digu beste gai batzuen artean, posizionamendu hau indartzen eta gure eredu dualean eta enpresa eta erakundeekin harremanetan aurrerapauso bat ematen.

**Zein da proiektu honek Mondragon Unibertsitatearen egunerokoan duen eragina?** Aliantza honek fase ezberdinak ditu. Hasiera batean lau urterako proiektu bat da, Europar Batzordeak 14'5 milioi eurorekin finantzatua. Lau urte hauetarako hainbat konpromiso hartu ditugu, eta gure kolektiboak hauen onurak jaso ditzake. Esaterako, mugikortasunerako edo ekintzailetzarako aukera berriak irekiko zaizkigu, edo Europar Batasunak etorkizunera begira mikrokredentzialen garapenerako duen apustua sendotuko da, eskaintza ahalik eta zabalena izan dadin. Oro har, bizitza osorako ikaskuntza malgutu eta pertsonalizatu nahi da. Ikasleez gain, irakasle eta ikerlarientzako aukera berriak zabalduko dira, besteak beste gure ikerketa eredua kontuan izanik Europa mailako deialdi eta proiektuetara aurkezteko aukera areagotzea aurreikusten baitugu.

Proiektu honekin guk dugun motibaziorik handiena eredu dualean aurrerapausoak emateko aukera da, horretarako sekulako plataforma bat garatu dugulako. Gure eredu dualak hurrengo bost urteetan izan dezakeen berrikuntza bultzatu nahi dugu aliantza honen bitartez, eta horrez gain Europa mailan erreferente izango den zentro bat sustatu nahi dugu. Zentro hau Alemanian kokatuko da eta bertatik pilotatuko dira formazio dualeko proiektuak zein artikulu zientifikoen argitaratzeak. Gure azken plan estrategikoan oso argi aipatu genuen gure inguruan erreferente garen alor honetan Europa mailan ere erreferentzialtasuna eskuratu nahi genuela, eta aliantza hau horretara bideratua dago.

**Zein da ikasleen papera EU4DUAL proiektuan? Eta enpresa edo erakundeena?** Azpimarratu nahiko nuke aliantza hau osatu genuenean hasieratik pentsatu genuela ikasle eta erakundeek duten papera aliantzara eramatea. Aliantza honetarako pentsatu dugun gobernantza ereduan unibertsitateez gain ikasle, enpresa eta erakundeen presentzia ezinbestekoa ikusten dugu. Adibidez, 9



erakundeetako ikasleek osatutako ikasle batzorde bat eratuko da, agenda eta aktibitate propioak garatuko dituena. Ikasleek, Mondragon Unibertsitateko ereduan bezala, aliantzako gobernu batzordean presentzia izango dute. Modu honetan ikasleek aliantzaren gobernu batzordera beraien ahotsa eramateko aukera dute, ez dira erabiltzaile hutsak.

Enpresen kasuan, hauek ere protagonista bilakatu nahi ditugu, eta horretarako tresna aliantzaren industria kontseilua izango da. Aliantza osatzen dugun unibertsitate guztiak herrialde eta eskualde industrializatuetan kokatzen garen erakundeak gara, hiriburuetatik kanpo nagusiki, eta berezitasun hau indargune bilakatzeko enpresen eta erakundeen inplikazioa ezinbestekoa da.

Azkenik, aliantza hau indartsu bilakatzeko gobernu, enpresa eta erakunde eta akademiaren arteko elkarlana ezinbestekotzat jotzen dugu, beraz erakunde publikoengana iristeko gai izan behar gara.

> Gure eredu dualak hurrengo bost urteetan izan dezakeen berrikuntza bultzatu nahi dugu aliantza honen bitartez"

# Adeptness ikerketa proiektuaren bukaera

APLIKAZIO EZBERDINEN EGUNERATZE PROZESUETAN ERAGITEKO HELBURUA ZUEN PROIEKTUAK BALORAZIO POSITIBOA JASO DU IKERKETA TALDE ETA ENPRESA KOLABORATZAILEEN ESKUTIK.



Proiektuko kideen bilkura Hernanin.

**Goi Eskola Politeknikoa |** Adeptness proiektua helmugara iritsi da. 2020an martxan jarritako eta 8 *work package*-etan banatutako proiektuaren balorazioa egin du unibertsitateko Software eta Sistemen Ingeniaritza ikerketa taldeak proiektuan parte hartu duten beste partnerrekin batera. Balorazioa oso positiboa izan da.

Atera duten ondorio nagusia da DevOps-eko metodologiak beste sistema batzuetan aplikatzen diren bezala ezin direla sistema ziberfisikoetan aplikatu. Hala ere, sistema ziberfisikoek dituzten bestelako erronka batzuk identifikatu ahal izan dituzte, bereziki, softwarea ez delako zerbitzarietan gauzatzen, sisteman baizik. Honengatik, eta beste erronka batzuengatik, software eguneraketak sistema ziberfisikoetan minutuko granularitatea eduki beharrean, hilabeteetako granularitatea dute. Adeptness proiektuak ezaugarri eta prozesu hau bistaratzea zuen helburu, eta proposatu dituzten metodo eta erreminta desberdinen bitartez hau betetzea lortu da.

Proiektua ofizialki martxoan bukatu den arren, honen *final review* bat egingo da ekainaren 9an Bruselan, proiektua kudeatzen duen *Project Officer* eta kanpoko bi ebaluatzailerekin.

**Atera duten ondorio nagusia da DevOps-eko metodologiak beste sistema batzuetan aplikatzen diren bezala ezin direla sistema ziberfisikoetan aplikatu.**

### Elkarlana indargune

Proiektuko erakunde kolaboratzaileek garrantzia nabarmena izan dute Adeptness proiektu osoan zehar. Ikerlanekin batera, adibidez, unibertsitateak IBAT berri bat martxan jarriko du helburu partekatuekin eta Jon Ayerdi ikerlariak ere bere doktore tesia gauzatu du esparru honetan. Bestalde, Simula Research Laboratory ere aliatu oso garrantzitsua izan da proiektuan zehar eta horri esker hainbat artikulu zientifiko argitaratu ahal izan dira.

Horrez gain, Orona ere ezinbestekoa izan da Adeptness proiektuan, bertako igogailuak probaleku erreal bat izan baitira, *use case* konkretu bat. Goi Eskola Politeknikoan landutako software arkitektura berri bat txertatuz igogailu ezberdinetan, igogailuaren datu zehatzak jaso eta *cloud* batera bidalita, teknikariak jakin ahal izango du igogailu konkretu batek eguneratzerako baldintzak betetzen dituen ala ez. Gauzak horrela, igogailuaren mantenu lanak hauek itxita edo jende barik daudenean egitea posible izango da, teknikari bat igogailu hori dagoen lokalizazio konkretura mugitu gabe, azken finean erabilgarritasunean modu zuzenean eraginez.

# Komunikazio Campusaren 3. edizioa

ASTEBETEKO IRAUPENA IZANGO DU, UZTAILAREN 3TIK 7RA. AURTEN, BIDEO-PODCAST SAIOA SORTU ETA ZABALDU BEHARKO DUTE SAREETAN DBH-4KO ETA BATXILERGOKO LEHEN MAILAKO IKASLEEK.




Bigarren edizioko gazteak, lanean.

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea |** Hirugarren aldiz, Komunikazio Campusa antolatu dute, elkarlanean, Goiena Komunikazio Taldeak eta Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazio graduak. Astebete iraungo du eta egingo da Mondragon Unibertsitateak Aretxabaletan duen Komunikazio campusean. Campusa dago zuzenduta DBH-4ko eta Batxilergoko lehen mailako gazteentzat. Egingo da uztailaren 3tik 7ra, astelehenetik ostiralera, goizeko ordutegian, 09:00etatik 13:30era.

### Bideo-podcast saioa sortu eta zabaldu sareetan

Udako campusaren helburua da gazteak modu praktiko eta dibertigarrian hurbiltzea komunikazioaren mundura. Horretarako, besteak beste, honako gai hauek jorratuko dituzte 3. Komunikazio Campusean: telebista platoen erabilera, kamera aurrean nola jarri, fotokazetaritza, podcastak nola egin, sare sozialetan zabalkundea…

Aurten, arreta berezia jarriko da telebistako platotik egindako podcast saioan eta ondorengo zabalkundean. Ariketak egiteko, Mondragon Unibertsitateko Aretxabaletako campuseko baliabideak erabiliko dira: telebista-platoa, ordenagailuak eta beharrezko izango duten bestelako materiala. Horretaz gain, Goienaren Arrasateko egoitza –erredakzioa, telebistako platoa eta irratia– ezagutuko dute parte-hartzaileek.

Komunikazioan adituek, Goienako profesionalek eta Mondragon Unibertsitateko irakasleek hartuko dute parte Komunikazio Campusean. Hala, saioak zuzenduko dituzte Ainhoa Vitoriak, komunikatzaile eta Gazteako irrati esatariak; Goiena Komunikazio Taldeko Xabier Urzelaik, mojo edo eskuko telefono adimendunekin ekoiztutako ikus-entzunezkoen edukietan adituak eta Mondragon Unibertsitateko irakasle Unai Portillak, podcast, streaming eta ikus-entzunezkoetan aditua.

# Hilario Arbelaitz entre amigos

LA COMUNIDAD GASTRONÓMICA Y BASQUE CULINARY CENTER HOMENAJEAN A HILARIO ARBELAITZ. EN EL ACTO SE LE HA HECHO ENTREGA DE DOS SÍMBOLOS QUE REPRESENTAN METAFÓRICAMENTE EL TERRITORIO, A TRAVÉS DE UNA ESCULTURA DE RAMÓN ROTETA Y EL LEGADO, A TRAVÉS DE UNA CHAQUETILLA FIRMADA POR ESTUDIANTES DE BASQUE CULINARY CENTER.



Hilario Arbelaitz recibió el merecido homenaje por su trayectoria.

**Basque Culinary Center - Facultad de Ciencias Gastronómicas |** Hilario Arbelaitz recibió un reconocimiento por su amplia trayectoria al frente de los fogones de Zuberoa en un emotivo homenaje ofrecido por la comunidad gastronómica de Euskadi y Basque Culinary Center.

Tras 52 años de carrera dedicada a la gastronomía Hilario Arbelaitz y la familia Arbelaitz han dicho definitivamente adiós a la cocina del Restaurante Zuberoa (Oiartzun) dejando una huella imborrable en la historia culinaria del territorio. Por ello, Basque Culinary Center quiso reunir a algunos de los chefs que conforman el patronato de Basque Culinary Center como Pedro Subijana, Eneko Atxa, Martin Berasategui, Andoni Luis Aduriz, Diego Guerrero y Elena Arzak, así como discípulos suyos, e integrantes de Mahaia Kolektiboa, entre otros, Gorka Txapartegi, Dani López, Roberto Ruiz y Aizpea Oihaneder, y también por estudiantes de Basque Culinary Center.

En la cita se reunieron más de 250 integrantes del sector gastronómico vasco que recordaron anécdotas y vivencias relacionadas con Zuberoa y con Hilario Arbelaitz.

Para completar el reconocimiento se le ha hecho entrega de dos símbolos que representan metafóricamente el territorio, a través de una escultura de Ramón Roteta y el legado, a través de una chaquetilla firmada por una estudiante de Basque Culinary Center.

### Una larga trayectoria en común

Hilario Arbelaitz forma parte del grupo impulsor de Basque Culinary Center y es uno de los responsables de que la institución abriera sus puertas y se haya convertido en una referencia a nivel internacional.

Tal y como afirmó Joxe Mari Aizega, director del centro, "Hilario Arbelaitz, además de ser una pieza fundamental en la historia de Basque Culinary Center, es todo un referente de la gastronomía vasca, un chef que ha sabido respetar la tradición, los productos, los sabores, y las técnicas, y hacerlas evolucionar manteniendo ese respeto y esa vinculación con la cocina tradicional del territorio".

Además, la consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente Arantxa Tapia dedicó unas palabras conmemorativas y la cultura y música vasca también tuvieron su espacio en el homenaje a través de las actuaciones de la bertsolari oiartzuarra Alaia Martin y del Coro Eguzkilore de la Cofradía de Gastronomía Vasca.

Para finalizar el acto los chefs integrantes de Mahaia Kolektiboa ofrecieron un cóctel a los y las asistentes.

**Hilario Arbelaitz forma parte del grupo impulsor de Basque Culinary Center y es uno de los responsables de que la institución abriera sus puertas.**

# Dando respuesta al despilfarro alimentario

ESTUDIANTES DE myGADE DESARROLLAN PROYECTOS CON EL OBJETIVO DE REDUCIR EL DESPILFARRO ALIMENTARIO EN EUSKADI



Estudiantes de myGADE trabajan en nuevas soluciones.

**Facultad de Empresariales |** En myGADE (Grado en Administración y Dirección de Empresas DUAL), como metodología de aprendizaje, los y las alumnas desarrollan un proyecto de Aprendizaje Servicio, relacionado directamente con algún objetivo de desarrollo sostenible. Este curso, alumnos y alumnas de segundo curso de myGADE del campus de Bilbao As Fabrik han tratado el tema del despilfarro alimentario, centrándose en la falta de concienciación y de hábito para reducir el desperdicio alimentario en Euskadi.

Para buscar una solución a esta problemática, decidieron colaborar con distintas entidades para realizar charlas de concienciación dirigidas a las y los estudiantes de la Facultad de Empresariales de Mondragon Unibertsitatea.

### Redurcir el despilarro

El alumnado contactó con el proyecto Zero Despilfarro de Elika (fundación impulsada por el Gobierno Vasco para la mejora de la Seguridad Alimentaria) y con Oreka (empresa que ofrece a las empresas donar sus excedentes alimentarios a organizaciones sin ánimo de lucro en un proceso seguro, transparente y automatizado). Las y los estudiantes organizaron dos charlas para myGADE 1, que se llevaron a cabo durante la "Garapen Astea", con el objetivo de concienciar a la juventud del problema de despilfarro de alimentos que se produce en los hogares, y cómo la lucha contra el mismo no está solo en manos de grandes entidades que producen y comercializan alimentos, sino que está en manos de todos y todas nosotras el cambiar nuestros hábitos hacia unos más sostenibles.

# Eguzki-plaka berriak Garaian

GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK PLAKA FOTOVOLTAIKOAK INSTALATU DITU GARAIAN KOKATUA DAGOEN HAMAIKAGARREN ERAIKINEAN. AUTOHORNIKUNTZAN AURRERA PAUSOAK EMAN ETA INGURUAREKIN JASANGARRIAGOA IZATEA DA HELBURUA.



Josu Urkiolaren lantaldeak garatu du proiektua.

**Goi Eskola Politeknikoa |** Garaian kokatua dagoen Goi Eskola Politeknikoko 11.eraikinean eguzki-plakak instalatu dira, eraikinaren autokontsumorako bideratuak daudenak, bertan sortzen den energia bertan kontsumitzeko bideratua egongo baita. Bestalde, 11. eraikinak kontsumorako behar ez duen energia sarera txertatuko da, trukean merkaturatzailearengandik konpentsazio ekonomiko bat jasoz.

Garaiako eraikinaren sabaiak orotara 1.700 m2 ditu eta ia azalera guztia erabili da eguzki plakak instalatzeko. Guztira 63 plaka jarri dira, bakoitzak 455W-ko potentzia duelarik. Beraz, instalatutako potentzia totala 119,6kWp-ra iritsiko da. Instalazio honen helburua urteko 120MWh sortzea izango da, 11. eraikinaren urteko kontsumoaren %14-%17 bitartekoa. Euskal herriko etxebizitza baten batez besteko kontsumoa urteko 3.370KWh-a da, beraz instalazio berria 35 etxebizitzen urteko energia kontsumoa sortzeko gai izango da.

**Energia ekoizle handienganako dependentzia murrizteko politiken baitan kokatzen da.**

### Burujabetasun energetikorako proiektuari erantzuna

Goi Eskola Politeknikoaren 11. eraikinean martxan jarritako proiektua MONDRAGON Kor-porazioaren burujabetasun ener-getikoaren eta energia ekoizle handienganako dependentzia murrizteko politiken baitan kokatzen da. Korporazio mailan garatutako proiektu bat izanik, KREAN ingenia-ritza kooperatiba izan da instalazioa-ren gidaritza bere gain hartu duena.

Elkarlanean oinarritutako proiektu bat izanik, energia elektrikoaren inguruan ikertzen dabiltzan Elektronika taldeko kideen partaidetza izan du. Hau dela eta, jasotako datuak irakaskuntza eta ikerketarako balio izango dute eta etorkizuneko eraikinen modelizazioa, kontrola edo ekipo adimendunen inguruan egiten diren proiektuetarako lagungarriak izango dira.

# Pau Pavón premiado en los Premios Internacionales GSEA



Pau Pavón, mejor emprendedor universitario.

**Facultad de Empresariales |** Pau Pavón, de 20 años, del Grado LEINN (Liderazgo Emprendedor e Innovación) de Mondragon Unibertsitatea del laboratorio de TeamLabs en Barcelona, ha sido elegido el mejor emprendedor universitario de España 2023 en los prestigiosos premios internacionales GSEA (Global Students Entrepreneurs Awards). De este modo, participará en la final europea, que se celebrará en Estambul (Turquía) del 5 al 7 de abril. Allí optará a una de las plazas para la final mundial, que tendrá lugar en Ciudad del Cabo (Sudáfrica) en el mes de mayo. Pau Pavón fue el único de los finalistas que no pudo estar presencialmente e intervino de forma telemática en la final celebrada el 23 de febrero en Madrid. Actualmente, Pau se encuentra en la India realizando su learning journey (viaje de aprendizaje) junto a su equipo como parte del programa del Grado LEINN y, próximamente, continuará con este viaje en Seúl (Corea del Sur).

Actualmente, tras más de 14 años desde que comenzó la andadura del Grado LEINN, cuenta con una comunidad internacional formada por más de 3.000 emprendedores y emprendedoras y más de 120 empresas de equipos creados en LEINN.

### Una nueva herramienta funcional

El proyecto ganador presentado por Pau Pavón es Examfy, una herramienta para los docentes que les permite, gracias al reconocimiento óptico de caracteres y a la inteligencia artificial, agilizar dos de las tareas más monótonas, repetitivas y pesadas del proceso de corrección: por un lado, el registro y subida de notas, y, por otro, la conservación de exámenes. Una vez que escanean cada examen con el móvil, Examfy los analiza y ordena por nombre y nota, y permite publicar notas o compartirlas con los estudiantes o sus padres. Examfy ya ha ganado diferentes premios como el europeo Wise 20 Under 20 a la mejor startup de educación en 2022.

Cabe destacar que, de los seis finalistas de los GSEA, tres pertenecían al Grado LEINN de Mondragon Unibertsitatea y TeamLabs, su laboratorio de aprendizaje radical en Barcelona, Madrid y Málaga. Además de Pau Pavón, se clasificaron Otto Desmons, con el proyecto Flyout, de LEINN Barcelona; y Nicolás Cañizares, con su proyecto Papyro, de LEINN Madrid.

Los Global Students Entrepreneurs Awards son la mayor competición mundial de emprendedores universitarios organizada por Entrepreneur's Organization (EO), entidad internacional de emprendedores con más de 12.000 miembros en todo el mundo. En esta edición, hubo dos ganadores: además de Pau Pavón también se premió al emprendedor Álex Sánchez de la Universidad Carlos III de Madrid y su proyecto Unigow.

# Ikus-entzunezko berrikuntzan eta ekintzailetzan aditu titulua

ASTEAZKENETAN SAIO SINKRONOAK EGIN ZITUZTEN, ETA HILABETEAREN AMAIERAN, AURREZ AURREKO SAIOAK LEKAROZEKO CAMPUS ENPRESARIALEAN, OSTIRAL ARRATSALDETIK LARUNBAT ARRATSALDERA. IKASLE ZEIN IRAKASLEEK BERTAN LO ETA JAN EGIN ZUTEN.



Martxoaren lehenengo asteburuan egin zuten 1. moduluaren workshop-a Lekarozen.

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea |** Martxoaren lehenengo asteburuan egin zen, Lekarozeko enpresa-campusean, Mondragon Unibertsitateak Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean ematen duen Ikus-entzunezko Ekintzailetzan eta Berrikuntzan aditu-ikastaroaren lehen lantegi presentziala. Ikastaroa online modalitatean eskaintzen da, baina, hilean behin, workshop edo lantegi presentzialak egiten dira Lekarozen. Tituluaren helburua da Nafarroako Foru Komunitateko ikus-entzunezko sektorea indartzea, negozio-eredu berriak sustatuz, eta Nafarroako zein beste erkidego batzuetako profesionalei eta graduatu berriei zuzenduta dago.

**Ikastaroa online modalitatean eskaintzen da, baina, hilean behin, workshop edo lantegi presentzialak egiten dira Lekarozen.**

### Sektorea bultzatzea

Nafarroako ikus-entzunezkoen sektoreari ezagutza bereizgarria eta espezializatua emateko beharraren ondorioz sortu da titulua, eta helburu argia du: foru erkidegoko ikus-entzunezkoetako enpresa-sarea sendotzea, negozio-eredu berrien bidez. Aspaldi honetan, ikus-entzunezkoen sektorea garrantzi eta proiekzio handia ari da hartzen foru erkidegoan. Horren erakusgarri da Nafarroako Gobernuak arlo hori sustatzeko egindako apustua. Izan ere, Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren laguntza jasotzen du sektoreak. Hori dela eta, prestakuntza sustatzeko, matrikulen prezioaren %55eko hobaria eman du ikastaroaren lehen edizio honetan.

Premia jakin batzuek sorrarazi dute titulua. Alde batetik, gaur egun Nafarroan eskaintzen ez den ezagutzaz hornitu nahi da ikus-entzunezkoen sektorea, arlo horretako enpresa-sarea indartzeko. Izan ere, Nafarroako eskualde batzuetan (hala nola Baztanen) gero eta muntai handiagoko filmaketak egiten dira gaur egun.

# XXVII congreso internacional de dirección e ingeniería de proyectos

LA ESCUELA POLITÉCNICA SUPERIOR DE MONDRAGON UNIBERTSITATEA ORGANIZA ESTE CONGRESO EN COLABORACIÓN CON LA ASOCIACIÓN ESPAÑOLA DE DIRECCIÓN E INGENIERÍA DE PROYECTOS (AEIPRO)

**Escuela Politécnica Superior |** La organización de congresos nacionales e internacionales es una de las columnas más importantes para trabajar la referencialidad en la investigación y la ingeniería. Por ello, la Escuela Politécnica Superior está inmersa en la organización del XXVII Congreso Internacional de Dirección e Ingeniería de Proyectos que tendrá lugar en julio de 2023 en el campus de Galarreta (Hernani).

El congreso se celebrará del 10 al 13 de julio con un formato mixto: online los días 10 y 11; y presencial los días 12 y 13 en el Campus Galarreta de Hernani. El encuentro congregará a profesionales y empresas vinculadas a la Dirección e Ingeniería de proyectos, así como a docentes e investigadores relacionados con las múltiples áreas de conocimiento que se tratarán en el foro. Será un encuentro internacional donde habrá espacio para la presentación de trabajos, debate e intercambio de ideas.

En el congreso se trabajarán las siguientes diez áreas temáticas:

1. Dirección y gestión de proyectos
2. Ingeniería civil, urbanismo y ordenación del territorio, construcción y arquitectura
3. Ingeniería de producto, procesos y diseño industrial.
4. Ingeniería ambiental y gestión de recursos naturales.
5. Eficiencia energética y energías renovables.
6. Desarrollo rural y proyectos de cooperación al desarrollo.
7. Tecnologías de la información y las comunicaciones. ingeniería del software.
8. Gestión de riesgos y seguridad.
9. Innovación educativa en dirección e ingeniería de proyectos.
10. Buenas prácticas y casos de empresa.

Fechas importantes:

El plazo para presentar los trabajos está abierto, así como el plazo para el registro de participantes. Para cualquier duda: *secretaria.congreso@aeipro.com*




El congreso internacional se celebrará en Donostia.

# 25. urteurrenaren ospakizuna Kursaalean

EHUNKA LAGUN BILDU ZIREN OTSAILAREN 24AN KURSAALEAN MONDRAGON UNIBERTSITATEAK BERE 25. URTEURRENA OSPATZEKO ANTOLATUTAKO EKITALDIAN.



Mondragon unibertsitateak lagun artean ospatu zuen 25. urteurrena.

**Mondragon Unibertsitatea |** Mondragon Unibertsitateak 25. urteurreneko kandelak haizatu zituen otsailak 24ean Kursaalean ospatutako gala hunkigarri batean, zenbait erakunde edo enpresa ordezkari eta unibertsitateko langileekin batera.

Bertan izan ziren, besteak beste, Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentea, Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusia, Jokin Bildarratz Euskal Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua, Gotzone Sagarduy Osasun sailburua, Jose Antonio Ardanza lehendakari ohia eta Iñigo Ucin MONDRAGON korporazioko presidentea.

Halaber, alderdi politiko ezberdinek ere beraien babesa eskaini zioten Unibertsitateari, ekitaldia bertatik bertara jarraituz. Era berean, hezkuntza eta enpresa munduaren ordezkaritza zabal bat ere gerturatu zen.

Unibertsitateko langileek ere ekitaldiaz gozatzeko aukera izan zuten, Mondragon Unibertsitateko Javier Oleaga, Hezkuntza Sailburu den Jokin Bildarratz eta Mondragon Unibertsitateko errektore den Vicente Atxarekin batera.

**Sorpresaz beteriko ekitaldia**

Mondragon Unibertsitateko ikasle ohia den Garazi Ayestak aurkeztu zuen ekitaldia, eta hainbat ikus-entzunezkoen bidez, Unibertsitatetik igaro diren errektore guztien kontakizunak entzuteko aukera izan zen bertan, baita 25 urte hauetan gobernu organoetan parte hartu duten edo parte hartzen ari diren emakumeenak, zein ikasle ohienak ere.

Testigantza horiez gain, galan zehar Mikel Pagadi eta Zuhaitz Gurrutxaga izan ziren ekitaldiari umore puntua jartzeko arduradunak, eta Harrobi dantza bertikaleko taldeak ere ikuskizun zoragarri bat eskaini zuen.

Gala hau Mondragon Unibertsitatea osatzen duten pertsona guztien oroimenean geldituko den eguna da eta Mondragon Unibertsitateak gerturatutako pertsona guztiei eskerrik beroenak eman nahi dizkie.

Mila esker bertaratu zineten guztioi!

Alumni

## "Aplico cada día lo aprendido en el Basque Culinary Center"

BEATRIZ DEL RÍO, ACTUALMENTE ADJUNTA AL DIRECTOR CORPORATIVO DEL SUR DE EUROPA EN NH HOTEL GROUP, RESALTA LA IMPORTANCIA QUE EL MÁSTER EN DIRECCIÓN DE F&B HA TENIDO EN SU TRAYECTORIA PROFESIONAL.

**Basque Culinary Center - Facultad de Ciencias Gastronómicas | ¿Qué tal fue tu experiencia en Basque Culinary Center?** Muy enriquecedora y a la vez prolífica profesionalmente. El TFM de nuestra promoción fue acerca del restaurante Kukuarri del hotel NH Collection Aránzazu de San Sebastián, gracias al cual fui seleccionada para realizar las prácticas curriculares en el departamento corporativo del grupo. Estuve tres meses en Madrid y otros tres en Lisboa, y al terminarlas pude quedarme a trabajar aquí. Actualmente soy adjunta al director corporativo de NH Hotel Group en el sur de Europa.

**¿Qué aprendizajes te han servido para aplicarlos en tu puesto actual?** Recuerdo que mientras cursaba el máster odiaba el diseño de instalaciones, pero a largo plazo me he dado cuenta de que es lo que más me ha ayudado. Hoy en día estoy mucho más familiarizada con los entresijos de una cocina profesional, y me ayuda muchísimo en mi día a día. Por otro lado, pude aprender muchas otras cosas muy valiosas como el cálculo del coste de una receta o las estrategias para aumentar las ventas sobre un producto o un servicio concreto.

También me enseñaron a estar alerta sobre las tendencias, ya que para marcar la diferencia debemos ser capaces de ofrecer nuevos servicios, por ejemplo, ampliar la oferta de desayunos con productos km 0, sostenibles, *superfoods o raw food*. En resumen, todo lo aprendido lo aplico hoy en día en mi trabajo, y lo hago, cómo no, desde desde una perspectiva sostenible.



Beatriz del Rio, alumni del Máster en Dirección de F&B.

# Talento de 12 nacionalidades en Bizkaia

B GLOBAL TALENT, UNA INICIATIVA IMPULSADA POR LA DIPUTACIÓN DE BIZKAIA Y DESARROLLADA POR MONDRAGON TEAM ACADEMY, PROMUEVE LA ATRACCIÓN Y DESARROLLO DE TALENTO A ESCALA LOCAL Y NACIONAL DE LA MANO DE EMPRESAS COMPROMETIDAS CON LA INNOVACIÓN




Gente proveniente de 12 países han compartido sus experiencias.

**Facultad de Empresariales |** El talento internacional dio cita el viernes 24 de febrero en Bizkaia de la mano de B Global Talent, una iniciativa impulsada por la Diputación Foral de Bizkaia y desarrollada por Mondragon Team Academy - Facultad de Empresariales de Mondragon Unibertsitatea para promover la atracción y desarrollo de talento en el territorio. El programa tiene como objetivo promover la innovación abierta junto a las empresas, y ha logrado reunir a más de 50 participantes de 12 nacionalidades que han trabajado en los retos presentados por Eroski, Datua, Kutxabank, Ibermática, Laboral Kutxa y Orbea. Las áreas de innovación propuestas desde las empresas giran en torno a la sostenibilidad, la inteligencia artificial, la eficiencia energética, la optimización de los procesos organizativos y la experiencia de usuario.

**Fortalecer ecosistemas de emprendimiento**

B Global Talent se desarrolla en B Accelerator Tower (edificio BAT de Torre Bizkaia), el ecosistema de emprendimiento e innovación que reúne una gran comunidad de startups, empresas, inversores y partners tecnológicos. La primera parte de la iniciativa dio comienzo el jueves, 9 de febrero, con un hackathon de 36 horas. Y durante las próximas dos semanas tuvo lugar un programa de aceleración, formación y talleres para dar forma de proyecto a las soluciones innovadoras. Tras este programa, los equipos han seguido desarrollando sus proyectos innovadores de la mano de las empresas participantes.

**B Global Talent reúne una gran comunidad de startups, empresas, inversores y partners tecnológicos.**

En palabras de la coordinadora del proyecto, Haizea Diego Goikoetxea, emprendedora del grado LEINN de Mondragon Team Academy-Mondragon Unibertsitatea: "Está siendo una experiencia enriquecedora, intensa y que ha creado mucho aprendizaje, además de generar una nueva comunidad internacional de emprendedores e intraemprendedores".

# Brasilgo Lanbide Heziketako 28 irakasleren bisita

LAU ASTEZ IZANGO DIRA HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEAN, PRESTAKUNTZA JASOTZEAZ ETA TITULU AMAIERAKO PROIEKTUA AURRERATZEAZ GAIN, HAINBAT ERAKUNDE ETA ENPRESA BISITATU DITUZTE.



Eskoriatzako campusean egindako harrera ekitaldia.

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea |** Martxoan, lau astez, Brasilgo Paraiba estatuko *Conexão Mundo* programan parte hartzen ari diren Lanbide Heziketako 28 irakasle Mondragon Unibertsitatea bisitatu zuten. *Conexão Mundo* prestakuntza programa honi esker, herrialde horretako Lanbide Heziketako 60 profesional formazio espezifikoa jasotzen ari dira 2022-2023 ikasturtean. Hiru arlotako irakasleak biltzen ditu *Conexão Mundo* programak: Marketin eta komunikazioa; Ingurumena, jasangarritasuna eta energia, eta Hezkuntza kooperatiboa. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakulta-teko koordinaziopean, Mondragon Unibertsitateko beste bi fakultatek ere hartzen dute parte programan, Enpresagintza Fakultateak eta Goi Eskola Politeknikoak

**Hilabeteko egonaldia Euskal Herrian**

*Conexão Mundo* prestakuntza online eskaintzen du Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak, baina, ikaste-irakaste prozesuan sakontze aldera, parte-hartzaileek aukera izan dute hilabeteko egonaldia egiteko Euskal Herrian. Egonaldia baliatu dute formazioa jasotzeko, titulu amaierako proiektuan aurrera egiteko eta, bertatik bertara ezagutzeko ikastaroetako jakintza-arloekin lotutako hainbat esperientzia interesgarri; hala, talde handian zein txikietan banatuta, hainbat bisita egingo dituzte.

**Harrera ekitaldia Eskoriatzan**

Martxoaren 6an, egin zen harrera ofiziala Eskoriatzako campusean. Bertan, Nagore Ipiña Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoak ongi etorria eman zien 28 bisitariei, egonaldiaren gaineko argibideak eman eta Fakultateko hezkuntza eredua azaldu zien. Ipiñaren esanetan, "oso aberasgarria izan da hezkuntza esperientziak partekatzea, elkarrengandik ikastea eta ikustea nolako harrera duen gure hezkuntza ereduak baita atzerrian ere".

# Osasuntsu bizitzeko neurriak

APIRILAREN 6A JARDUERA JARDUERA FISIKOAREN MUNDUKO EGUNA DA ETA APIRILAREN 7A OSASUNAREN MUNDUKO EGUNA. IKASTURTERO BEZALA, KIROL ZERBITZUAK BAT EGINGO DU EGUN BEREZI HORIEKIN ETA UNIBERTSITATEAN OSASUN ASTEA ANTOLATUKO DA.




Kirol ohiturak argi egituratzea garrantzitsua da

**Kirola |** Gaur egunean, asko dira mundu mailan egun propioa duten gai edo arrazoiak eta ia egunero entzun dezakegu komunikabide ezberdinetan horien aipamena. Gure arloari dagokionez, jarduera fisikoaren eta osasunaren mundu mailako egunak dira esanguratsuenak (irailean antolatzen diren Mugikortasun astea eta Unibertsitate kirolaren munduko eguna). Egun horiek antolatu edo gai jakin bati egun bat izendatzearen arrazoi nagusia, mundu mailan gai horrekiko kontzientzia garatu eta lanketa egitea da. Hau da, kanpaina gisa erabiltzen da, erakunde ezberdinek zenbait ekimen martxan jarri eta gizartean eragin bat lortu nahian.

Gaurkoan Osasunaren Munduko Erakundeak gomendatzen dituen jarduera fisikoarekiko irizpideak gogoratzea dugu helburu, posible dugun neurrian, urteko 365 egunetan presente izan ditzagun. Azken urteetan argi ikusi dugun bezala, gure esku ez dauden faktore ugari ditugu gure osasunean negatiboki eragiten dizkigutenak eta norbere zaintzari begira, gure esku dagoena egiteari uzten badiogu, baliteke gure osasuna bere osotasunean kaltetua ikustea (batez ere adinean gorantz goazen heinean).

**Unibertsitateko komunitateari erreparatuz, gomendio nagusiak:**
Heldu (17-64 urte) guztiek jarduera fisikoa erregulartasunez egin behar dute: intentsitate ertaineko jarduera fisiko aerobikoa egin behar dute, gutxienez 150-300 minutu; edo intentsitate biziko jarduera fisiko aerobikoa, gutxienez 75-150 minutu; edo astean zehar intentsitate ertain eta biziko jardueren konbinazio baliokide bat, osasunerako onura handiagoak lortzeko.

Guzti hau esanda, eta Kirol Zerbitzuaren helburu nagusietako bat unibertsitateko komunitatean bizi ohitura osasuntsuak sustatzea izanik, ikasturte honetan ere osasun astea antolatuko dugu. Aurtengoan, apirilaren 6 eta 7a opor egunetan egokitzen direla jakinda, astebetez aurreratuko dugu eta martxoaren 27 eta 31 bitartean izango da. Gai honekiko kontzientzia garatzea bultzatu nahi dugun arren, aste honetaz gain, ikasturte osoko programan ere parte hartzera gonbidatzen zaitugu, izan ere, aste batean izandako ohiturek ez dituzte zure bizi ohiturak aldatzeko nahiko indarrik izango eta.

Batu osasun astera eta batez ere, batu bizi ohitura osasuntsuetara!!

# Maider Oleaga Huhezinema 2023 lehiaketaren garaile

ARETXABALETAKO ARKUPE KULTURA ETXEAN BANATU ZITUZTEN MONDRAGON UNIBERTSITAKO IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA GRADUKO IKASLEEK ANTOLATUTAKO JAIALDIKO SARIAK.

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea |** Ohi bezala, Aretxabaletako Arkupe kultur etxean egin da Huhezinema Euskal Film Laburren Jaialdiaren sari banaketa ekitaldia. 16. edizioko Sail ofizialeko irabazlea izan da Mondragon Unibertsitateko ikasle bat, Maider Oleaga Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko ikaslea, 'Irris' film laburrarekin. Unibertsitateko ikasleek egindako lan onenaren saria, bestalde, Javier Elizaldek zuzendutako 'Mitxoletak' lanak jaso zuen.

Guztira, 84 lan aurkeztu dira aurten lehiaketara eta horietatik 32 pasatu dira finalera, sail desberdinetan. Oraingo edizioan, 4.000 euro inguru banatu dituzte saritan.

Huhezinema Euskal Film Laburren Jaialdia ez da ohiko lehiaketa bat, izan ere, irakasleen laguntzarekin eta graduko Kultur ekitaldiak antolatu eta ekoiztu izeneko proiektuaren barruan, Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko 4. mailako ikasleek antolatzen dute sariketa. Aurten, 14 laguneko talde batek antolatu du Huhezinema.



16. edizioko irabazle guztiak.

# Arizmendiarrietaren

## TXOKOA

Jose Maria Arizmendiarrietaren ondarea, filosofia eta baloreak. Gogoeta liburuxka.

EUS

**"Bat ez da kooperatibista jaiotzen, kooperatibista izateak heldutasun soziala eskatzen duelako, elkarbizitza sozialean trebatzea".** (Cooperación aldizkaria 1. 1960-IRAILA)

ES

**"Uno no nace cooperativista, porque ser cooperativista requiere una madurez social, un adiestramiento de convivencia social".**
(Revista Cooperación 1. 1960-SEPT.)

# Jardunaldiak

**BASQUE CULINARY CENTER - FACULTAD DE CIENCIAS GASTRONÓMICAS**

**Apirilak 26:**
Jornada Gastronómica de Galicia
**Maiatzak 4**
**Alumni hitzaldi zikloa.**
Cocinando con chefs. María José Meda (El Batan)
**Maiatzak 11**
Cocinando con chefs. Joel Castanyé
**Ekainak 7**
Reunión del Consejo Internacional de BCC en Japón

**HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA**

**Maiatzak 18 eta 19**
Bilbo BBF. International conference on academic literacies in multilingual contexts: Bridging research evidence and classroom practiceAlpha jardunaldia. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
**Ekainak 15**
Aretxabaletako kultur-etxea. Euspot euskarazko spot lehiaketaren sari banaketa.

# ATE IREKIAK

*Izen emateko: https://www.mondragon.edu/eu/unibertsitate-graduak/ate-irekiak*

**INDUSTRIARI APLIKATUTAKO INGENIARITZA FISIKOA**
Apirilak 22, 10:00 eta 11:30 Bilbao AS Fabrik
Maiatzak 24, 18:00etan online

**INGENIARITZA BIOMEDIKOA**
Apirilak 22, 11:00 Arrasate
Maiatzak 23, 18:00etan online

**INDUSTRIA ELEKTRONIKAKO INGENIARITZA**
Apirilak 22, 11:00etan Arrasaten
Maiatzak 23, 18:00etan online

**INDUSTRIA ANTOLAKUNTZAKO INGENIARITZA**
Apirilak 22, 11:00etan Arrasaten
Maiatzak 23, 18:00etan online

**INDUSTRIA DISEINU ETA PRODUKTU GARAPENEKO INGENIARITZA**
Apirilak 22, 11:00etan Arrasaten
Maiatzak 24, 18:00etan online

**INDUSTRIA PROZESUETAKO EKOTEKNOLGIETAKO INGENIARITZA (GREEN MANUFACTURING)**
Apirilak 22, 11:00etan Orona Ideo EKO Campusean (Hernani)
Maiatzak 22, 18:00etan online

**INGENIARITZA MEKANIKOA**
Apirilak 22, 11:00etan Arrasaten
Maiatzak 23, 18:00etan online

**INGENIARITZA MEKATRONIKOA**
Apirilak 22, 11:00etan Arrasaten
Apirilak 22, 11:00etan Bilbao AS Fabriken
Maiatzak 23, 18:00etan online

**ENERGIAREN INGENIARITZA**
Apirilak 22, 11:00etan Orona Ideo EKO Campusean (Hernani)
Maiatzak 23, 18:00etan online

**BATXILERGOKO LEHENENGO MAILAN, INGENIARITZATAN INTERESATUTA DAUDEN IKASLEEI ZUZENDUTAKO INFORMAZIO SAIOA**
Ekainak 7, 18:00etan online

**BUSINESS DATA ANALYTICS (BDATA)**
Apirilak 29, 11:00etan Bilbao AS Fabriken - Maiatzarn 11n, 18:00etan Bilbao AS Fabriken

**ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZA (MYGADE**
Apirilak 29, 11:00etan Irunen -
Maiatzak 11, 18:00etan Irunen -
Apirilak 29, 11:00etan Oñatin -
Maiatzak 11, 18:00etan Oñatin

**LIDERGO EKINTZAILEA ETA BERRIKUNTZA (LEINN)**
Apirilak 27, 17:30etan Bilbao Berrkuntza Faktorian -
Apirilak 29, 11:00etan Irunen -
Apirilak 20, 17:30etan Oñatin

**HAUR HEZKUNTZA**
Maiatzak 20, 11:00etan Eskoriatzan

**LEHEN HEZKUNTZA**
Maiatzak 20, 11:00etan Eskoriatzan

**LEHEN HEZKUNTZA (BERRIKUNTZA DIGITALA AIPAMENA BAKARRIK ESKAINIKO DA)**
Apirilak 22, 11:00etan Bilbao AS Fabriken

**IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA**
Maiatzak 20, 11:00etan Aretxabaletan

**HUMANITATE DIGITAL GLOBALAK (HDG)**
Maiatzak 20, 11:00etan Bilbao AS Fabriken

**GASTRONOMIA ETA SUKALDARITZA ARTEAK**
Miatzak 6, 10:30etan Donostian

**GOI ESKOLA POLITEKNIKOA**

## Dirección y Gestión de Proyectos

- **CURSO GESTIÓN DE PROYECTOS. AVANZADO** 8/5/2023. BILBAO
- **CURSO DE ADAPTACIÓN AL GRADO EN ONLINE INGENIERÍA EN ELECTRÓNICA INDUSTRIALO** 11/10/2023/. ONLINE

## Electrónica y energía

- **MÁSTER INTERUNIVERSITARIO DE FORMACIÓN PERMANENTE EN TECNOLOGÍAS DE HIDRÓGENO** 20/10/2023. Bilbao-Barcelona-Tarragona-Zaragoza
- **MÁSTER DE FORMACIÓN PERMANENTE EN EMPRENDIMIENTO TECNOLÓGICO PARA LA SILVER ECONOMY** 17/10/2023. URDULIZ
- **CURSO DELEGADO DE PROTECCIÓN DE DATOS (DPO).** 19/10/2023. Hernani
- **MÁSTER DE FORMACIÓN PERMANENTE EN CIBERSEGURIDAD** 20/10/2023 ONLINE
- **CURSO METALOGRAFÍA Y ENSAYOS MECÁNICOS DE MATERIALES METÁLICOS.** 16/5/2023. Arrasate-Mondragón
- **MÁSTER PROFESIONAL EN FABRICACIÓN ADITIVA INDUSTRIAL** 25/9/2023. ORDIZIA
- **CURSO DE ADAPTACIÓN AL GRADO EN ONLINE INGENIERÍA MECÁNICA** 11/10/2023. ONLINE
- **CURSO ACEROS INOXIDABLES: CURSO COMPLETO (PRESENCIAL Y STREAMING)** 17/10/2023. ARRASATE-MONDRAGÓN

**ENPRESAGINTZA FAKULTATEA**

## Másteres Universitarios

*Informazio saioa 2023-06-06a*

*Izen emateko: https://www.mondragon.edu/eu/unibertsitate-masterrak/informazio-saioak-azokak*

- **MÁSTER UNIVERSITARIO EN DIRECCIÓN CONTABLE Y FINANCIERA** octubre 2023
- **MÁSTER UNIVERSITARIO EN MARKETING DIGITAL:** octubre 2023
- **MÁSTER UNIVERSITARIO EN INTERNACIONALIZACIÓN DE ORGANIZACIONES** octubre 2023
- **MÁSTER UNIVERSITARIO EN ANÁLISIS DE DATOS PARA LA INTELIGENCIA DE NEGOCIO / BUSINESS ANALYTICS:** octubre 2023
- **MÁSTER UNIVERSITARIO EN ANÁLISIS DE DATOS PARA LA INTELIGENCIA DE NEGOCIO / BUSINESS ANALYTICS:** octubre 2023
- **MÁSTER UNIVERSITARIO EN EMPRENDIMIENTO E INNOVACIÓN ABIERTA:** octubre 2023

## Formación para Profesionales

- **MBA EXECUTIVE** octubre 2023
- **EXPERTO EN PERSONAS, CULTURA Y TALENTO PARA EL FUTURO DEL TRABAJO** febrero 2024
- **MÁSTER EN COACHING** febrero 2024
- **DIPLOMA DE ESPECIALIZACIÓN EN LIDERAZGO** febrero 2024
- **EXPERTO EN LIDERAZGO Y TRABAJO EN EQUIPO** febrero 2024

# ZURETZAT EGINA. PLANETARENTZAT EGINA.

Eskatu zure LABORAL Kutxa gazte-txartela, **% 99 birziklatutako materialez egina.**






- 26 urtez beherakoentzako zordunketa-txartela, jaulkipen- eta mantentze-komisiorik gabe.
- Txartel pertsonalizagarria: Emaiozu zure estiloa txartelari, gehien gustatzen zaizun irudiarekin. **300 baino gehiago** dituzu aukeran.
- LABORAL Kutxak **ez du komisiorik kobratuko** atzerriko kutxazainetan, hilean zordunketa bidez dirua ateratzen den lehen aldian. Kutxazainaren jabe den erakundeak komisio bat ezar lezake kutxazaina erabiltzeagatik (LABORAL Kutxak ez).
- Zure mugikorrarekin ordaindu ahal izango duzu, txartela **LK Payri, Google Payri, Apple Payri** edo **Garmin Payri** lotzen badiozu.

**Abantaila guztiak ezagutzeko, informa zaitez hemen: laboralkutxa.com/eu/gazteak**

Deskargatu App-ak

Banca Online LK Pay

LABORAL kutxa